M.337 F.344

SV CE
BIZ

BIZKAITARRA

ORRI EGAZEGIKORRA

Nº 1 (8 jun. 1893)

Bizkai'ko euskeraz | España'ko erderaz

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
ORRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vizcaya

1601'ko Bizkaya

Gixaldi bi ta lauren ixan zirian (1379'an), irugarren Iban Bizkai-Jauna'k jarauntsi ebandik Castilla-Leon'en koroya, erreñu oneetan bere ixenaren lelengua ixateko. Urte atatik España'ko Errege ta Bizkai'ko Jaun al-ixenak, bijak, lagijagattik lelengua ta ekandubagattik bestia, jarauntsigarrijak ixanda, gixon bakarran beti batuten zirian. Batzaldi au Bikaya'entzako gauza zorigestakorrena ixan da. Asijeratik bere ekarrpenak nekatuten asi zan.

España'en Erregea Bizkai-Jaun zala, aren lagi-egilliak bera igittu ta akullatuten sarrittan eben, Bizkai-Jaunerrija bezetako (Errege berak ezpa eban egitteko pentsamentuba), ta olan atontzen ebezan forukalte gogorr asko, eta Bizkaya'k bere buruba eskututen eban lagi-bidetatik lelenguan eta, oneek etzirianian ixaten egikorrak, bere semiak bere mendijetako burdiñaz armetan.

Baña adi bat zeintan Bizkaya'k bere burubaren zerdendasuna ta bere arimiaren indarrtasuna guztiz argiro erakutsi ebazan, goyan marrkatuba geratu dan urtia ixan zan.

España'ko erreñuba eukitten ebala Pillipe bigarrenak, agindu eban 1590'an kontribuziñoe *servicio de millones*-ixenagaz exautuba. Pillipe bigarrenak ori España'entzat agindu eban, bere Errege zalako; ez, Bizkaya'entzat, bere Jauntzat. Zerren Pillipe España'ko bigarrena ta Bizkai'ko lelengua jakintxuba zalako ta ekijan España'Erregetzat eta Bizkai'Jauntzat banako alkintxeak eukitten ebazala; ziurra zalako, ta onegattik ez litxatekian urtengo bere alkintxearen bidetik; zolija zalako, ta onegattik darda gañian ez leukien erabilliko bere miñistruak. Orregattik, bera Lisbonna'n 1581'an eguala, arek Bizkaya gatzarentzako inpostuagaz zaparrastau gura ixan ebenian, berak, jakin ebala, agindu ebazan aginpen egigarrijak alderatutia ta dekretuak Bizkaya'entzat esaten ebana kendutia.

Baña irugarren Pillipe bere semia, 1598'an trono españarran jarritta, Bizkaya erasua eban forukalte gorrotugarrijenak: España'ko lagi-egilliak erabagi eben geure Jaunerrijan *servicio de millones*-kontribuziñoia sarrtzia, ta dekreto-deyera egin barik, eta Bizkaya'ri Pillipe bigarrenaren semiaren aurrian eskututeko denpora emon barik, gobernu españarrak bijaldu ebazan ona bere gaiztakeri-egilliak, zeintzuk etorri zirian, euron aginpena egitteko, biderik ez jaramotera erabagirik.

Jarrki yakezan bizkaitarrak dekretua eurontzako etzala esaten; baña euron errengurak euron Jaun ixango litxatekianaren belarrijetara etzirian elduten, ala bera ez entzuteko estalduten ebazan.

Guenian, asarrero estutu ta esetsirik bizkaitarra bijaldu ziskuzale aren, erri euskeldun onen semiak Gernika'ko Aretxa'aspijan Batzarra egi eben, eta eskribidu ta bijaldu eutsen Jaun ixanguari emen teian daguan aurrkezpena, zeñek denpora aretako bizkaitarren zerdentasuna, ta aberaskintxeak eta bixitxa bere baño geyago euron Errija onesten ebela darakuskuzan.

ATTA NAUSIJA

Jauna:

Castilla'ko Batzakuntzeak Zeuri txarrto erakatsitta eta Zeure borondatia lokatuta Geu argi-argiro eraso ta txarrto eskuztatuteko, Zeuri antziñeko Jaunerri onek egin ta oraintxe egitten deutsuzan ekurte edo serbizijo andi ta leyal askoren saritxat, Geuri aginduten Castilla'ko erreñu orretako gixon onak pagatuten deutsubena pagatuteko, ta ori Bizkai'ko Jaunerri antziñeko ta ondrau onek ikusitta: Jaunerri onetako semiak Batzarra egin dogu Geure Gernika'ko uri onetan, eta ikusi dogu Zuk Geuretzako olako gogorrkerija egin gura ixaten, eta Geure Lagi doniak (1) eta Geure atta zintzuen burutasuna eratzi gura ixaten, Zeure agindubetatik Geuretzazo dasana tildatu, borratu ta kendutia agindu dagizuzala, Zeuri eskatu ta erregutu biarr deutsugula: au ezpada egitten, *Geu Geure Erri txitto mattia eskutatu ta pekotuko dogu Jaunerri au erre ta murrittuta ta Geure emakume ta semiak eta pamilija ilta ikusteraño, ta gera on egillia aurrkitteraño.*

Au darua Gamboa'tarr Peru'k, Jaunerri onen bijalduba ta Zeure serbitxalle ona dana; bera bakarra ez egizu errutatu orregattik, baña eskerrak emon egijozuz, orrentzako Guk erregutuba dogulako.

Geure Gernika'ko Urijan eta 1601'ko Orrillako 12'an egin ta emona.

Zeure antziñeko Bizkai'ko Jaunerri leyala, Zeuri serbitxerako prestuba daguana.»

Au ekarrtzen eban itxaskixon bizkaitarr duatsubak emon eutsan Pillipe berari; ta onek gauza arek ez ebazalako jakin, ala dekretuaren agindubak egittera etzalaco azarrtuten, lagi esanaren Bizkaya'entzako zatija kendu erazo eban, eta Jaunerri oni erantzun eutsan onelan:

«Neure Jaunerri mattia:

Zeuek Zeuen kittutasun edo libertadien bixitxa gura ixaleko errazoia daukazubela, eta pagatuten deustena Neure Otseñak Zeuek pagatutera erazoteko irakatsi txarrto deustala Neure *Consejo'k*, ikusirik; eta Simancas'ko Liburutokijan Nire asabak Neure Jaunerri matte orrentzako agindu ebena ikusirik: agindu dodaz Neure Lagi Erregenetan Jaunerri orrentzako daukena kendu ta borratutia kittutasuna euki ebezan Zeuen asabak eta euki gura dagixubezan beste batzuk bere Zeuek euki dagixubezantzat. Neuk serbizijo on ta leyal arrtu ta oraintxe aruturikuakattik.

Neure Valladolid'eko koroetokijan eta 1601'ko Orrillako 24'an emona.

NEU ERREGE'K.

Neure antziñeko Bizkai'ko Jaunerri mattiari.»

(1) Erri baten denpora edozeintzubetan berbegikera ta egipenak adittuteko, erri beraren denpora aretan ixakerea ezautu biarr dau. Zergattik aurrtezpen onetan daguan *Privilegios*-ixenak eztau esan gura *Academia Española'k* gurabena. Onentzako *privilegio* da beti gauza bat emoten daben buru batek; eta aurrtezpen atan esan gura dabena *Privilegios*-ixenak Bizkai'ko lagi ta kittutasunak dira, zeintzuk eztira emonak iñozpez.

Bizkaya en 1601

Hacía dos siglos y cuarto (en 1379) que, habiendo heredado el Señor de Bizkaya Juan III la corona de Castilla-Leon (siendo en estos reinos el I de su nombre) los títulos de Rey de España y Señor de Bizkaya, hereditarios ambos, por ley el primero y el segundo por uso, venían recayendo en una misma persona.

Ya desde los primeros tiempos de esta maldecida union, Bizkaya comenzó á experimentar sus efectos, viéndose de continuo amenazada por la ambicion de los legisladores españoles, que, despertando en su Rey los deseos de someter á aquella nación (si ya no los abrigara él por sí mismo), se servían del cargo de Señor de Bizkaya que le estaba confiado, para intentar los más notorios y graves contrafueros, de los cuales dicha república veíase obligada á defenderse apelando, primeramente, á las vías legales, ó armándose si este medio resultaba ineficaz, con el hierro de sus montañas.

Pero una de las ocasiones en que la Bizkaya de aquellas épocas más claramente demostró la altivez de su frente y la firmeza de su espíritu es la fecha que encabeza estos renglones.

Reinando en España Felipe II, el monarca que á más alto grado de grandeza y poderío la elevara, decretóse en 1590 la contribucion conocida con el nombre de *servicio de millones*. Felipe II la decretaba para España, como Rey de España; no como Señor de Bizkaya, para esta república: porque Felipe II de España, I de Bizkaya, era sabio, y conocía las distintas atribuciones que como Rey de España y Señor de Bizkaya le pertenecían; era justo, y no había de cometer la iniquidad de extralimitarse en el ejercicio de su cargo de Señor; era fuerte y no había de ser juguete del capricho ó la soberbia de sus ministros. Por esto cuando, encontrándose en Lisboa en 1581, pretendieron sus ministros gravar á Bizkaya con el impuesto sobre la sal, mandó, no bien tuvo noticia del suceso, se retirasen las órdenes ejecutivas dadas y se borrase del decreto cuanto á Bizkaya pudiera referirse.

Mas habiendo su hijo Felipe III ascendido al trono español en 1598, sintióse Bizkaya ultrajada por el más violento contrafuero: pues haciendo extensiva al Señorío la contribucion del *servicio de millones*, y sin promulgar tan inicuo decreto á fin de que aquél no tuviera tiempo para defenderse ante la razon y el derecho recurriendo al sucesor de Felipe II, apresuróse el gobierno español á enviar los ejecutores de su infamia, los cuales vinieron dispuestos á no reparar en medios para llevar á cabo su innoble cometido.

Resistiéronse los bizkainos, alegando las pruebas de que no rezaba con ellos decreto semejante; mas ó sus quejas no llegaban á oídos del que había de ser su Señor, ó éste se los tapaba para no escucharlas.

Finalmente, viéndose brutalmente acosados por aquellos exactores los hijos de la república euskeriana, reuniéronse en Junta General so el Arbol de Guernika el 12 de Mayo de 1601 y redactaron y dirigieron al presunto Señor la siguiente representacion, verdadero monumento de la sencilla y natural altivez de los bizkainos de entonces y prueba manifiesta de que amaban la independencia, no ya más que las riquezas, sino más que la misma vida.

«MUY ALTO PADRE

Señor:

Visto por Nos esta antigua ó honrada Señoría de Vizcaya lo mal que V. M. está informado, por orden del Consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar mal tan al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoría de V. M. y los que ahora de presente hacen á la Corona Real de V. M., en mandarnos que pagásemos ciertos pechos á Derechos como los demás buenos hombres de esos Reynos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Cavalleros é Hijos-Dalgo de esta Señoría en esta nuestra Villa de Guernica, que los Reyes antepassados de V. M. nos dieron por nuestros honrados servicios, hallamos que queriendo usar V. M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrados Privilegios (1) y la authoridad que nuestros honrados padres han tenido: que debíamos de suplicar y pedir humildemente á V. M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmáticas Reales lo que á nosotros toca, pues es Justicia lo que pedimos; y, suplicamos á V. M. no hubiesse lugar de hacernos, *nosotros quedamos obligados á defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoría y muertos mujeres é hijos y familia, é buscar quien nos ampare y trate bien.*

Esta lleva Don Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoría, gran servidor de V. M.; no sea él solo culpado por ello, antes V. M. le haga merced, porque fué importunado para ello.

Dada en nuestra Villa de Guernica en 12 de Mayo de 1601.

Vuestra antigua y leal Señoría de Vizcaya, que al servicio de V. M. queda.»

El célebre marino bizkaino que era el portador de esta representacion entregósela personalmente al mismo Felipe, quien porque no hubiese sido hasta entonces enterado del caso ó porque no creyese prudente obstinarse en la ejecucion del decreto, lo hizo anular en lo que tocaba á Bizkaya, contestando á este Señorío en la siguiente forma:

(1) Para entender debidamente el lenguaje y los actos de un pueblo en una época determinada, es preciso conocer el espíritu del mismo en dicha época. Así, la palabra *Privilegios* que en esta representación emplean los bizkainos no significa lo que, según la Academia Española, debiera expresar. *Privilegio*, según ésta, es siempre *algo concedido* por una autoridad; y lo que los bizkainos querian significar con aquella palabra no son sino las instituciones, leyes y libertades de que *ab origine* gozaba y que la *distinguian* de los estados que tenian por Rey á su Señor. Bizkaya no se fijaba entonces en los nombres, sino en las cosas.

1602'garren urtian España'ko Pillipe irugarrenak Dekreto Erregen batian baidurí-emoten eta laketuten ebazan Bizkai'ko lagi, kittutasun ta ekandu onak, euron zaindute ta jaotia ziñegitten, eta onegatik ixaten asi zan Jaun Bizkai'kua, erri zeintan bere ixenaren bigarrena ixan zan.

1893'ko Bizkaya

Ikusi dabe irakurrliak zein sendotasunaz jarrki yakozan bizkaitarrak 1601'an forukalte baten zemayari, denpora aretan España zanian munduko erri indarrtsubena eta bere semiak benetako gudarijak zirianian, eta Bizkai'ko Errijak eregi ete leixan armetan amarr milla gizon, zerren bere Jaunen serbizijotan sarrittan juan ixaten zanian gerretan bere gendia asko ibittu ixan zalako.

Oraingo denporetan arduremoten deuskun egokayan egija da forukalte batez eztala eskuztatuten, ezta gaurr España erri indarrtsubena berez, baña erkin ta matxarrena, eztire bere semiak benetako gudarijak berez, ez gitxi-gitxijago berez. Esapen azken bi onek ikusazi barik itxitta, ezta biarr dalako, esaten dot forukalte-ixena eztaquijo emon Gamazo'k gurabenari, zerren eztire gaurr deritxen *Foruak*, ez, balira, eztalako iñor berez ministro españarra forukalte bat egitteko (1) zegattik ezta, ezta ixan, ezta ixango berez (ezpegi barrerik) Bizkai'ko buruba.

Baña aldi bijen antza da bijetan lagi batez eskuztatuten dala: 1601' an Bizkai'ko Errijaren lagi batez; 1893' an Bizkai'ko probintzijaren lagi batez, eze onaño jautsi da geure Erri mattin.

Ia diranez biskaitarrak au ixena eukitteko duiñak, ala daukezanez euron bekokija autseko gañian eta euron lepoko gañian españarraren oña, mundubak ikusi dagidala biarr da.

Ezta Bizkaya España' en uztarrijan loturik eta lagi-egille arrotz batek iñakindurik daguan Euskelerri'ko erri bakarra.

Alanola a bezau España'k eban 1876' an, erreñu orretan Alfonso amabigarrena zanian, alantxe erreñu orrek berak ordubantxe banatu ebazan *paeto* edo ittunpen Gipuzkoagaz 1200' an eta Arabagaz 1332' an egin izan ebazanak, eta alantxe 1512' an Expaña'ko Fernando boskarrenak, iñakiñaz *el católico* eritxija, Naparra bezau izan eban. (2)

Bidaso'ko onantzeko Erri euskelerritarr laurok osarrtuten labe erri españarrak danok bezauta ixate-zorigestua; eta guztijei bat gitxijago zematuten deutse España' ko lagi-egilliak España'ko probintzijac legez imiñijak ixatiagaz.

Onegattik, bada; lau Erri orrek, kondairetan banakuak, baña berbegikeraz, gixantzeraz ta ixakeraz anayak, eta zorigestuaz bardiñak, ixango ete dira ain sentsunbakuak eztagijela alkarr besarrkatu indarrto Euskelerri-gorputz bakarra egitteko eta barratu ta birrindu dattezala ain okerrto, eta euron bat jarrki ta erasua baliz, bestiok eztattekezala eldu bere pekora, ta bere burubaren alari bakarrik itxi dagikiuela?

IAKIÑA DATTIANTZAT

Beian ixentarik daguan liburuban Bizkaya'k gura biarr dabena azterrtu ta azaldu da naikua ondo ulerrtuba dattiantzat. Baña bizkaitarr batzuei entzun yake Bilbo'ko *sociedad* edo batzatoki batian beti adittu ta gura ixan dala liburu arena.

Orregattik orri au eskribidu-dabenak azkarrtu biarr dau, oraingo partidu batentzat ustia ez ixateko, bera dala bizkaitarr *carlista*-kaltekorr, *integrista*-kaltekorr, *euscalerriaco*-kaltekorr, *conservador*-kaltekorr, *fusionista*-kaltekorr eta *errepublicano*-kaltekorr bat, bein esateko, bizkaitarr *liberal*-kaltekorr ta españarr-kaltekorr bat, eze au dalako bizkaitarr guztiyak ixan biarr dabena leyalak ixateko berba onei: JAUNGOIKUA ETA LAGIZARRA.

Abando'n, 1893'ko Garillako 8'an.

(1) Ikusi begi irakurrliak zer dan *forukaltia* «Bizkaya por su independencia» liburutxoko *Nota* azkenan.

(2) España'ko Fernando boskarrenak, 1512 'an Naparra'ko tronua onen Catalina ta Iban Labrit benetako jaubiei ostu eutsela, ondo zaindu ebazan erreñu euskelerritarr aren Forubak. Baña 1841'ko Agorrillan, Gobernu españarrak, Bergara'ko Convenio'en osteko lagi egin batian jarritta, bezau eban Naparra, eta itxi eutsazan bakarrik zenbateko lagi batzuk. Onek dira Gamazo'k orain kendu gura deutsazanak.

«Querida y amada Patria y Señoría mía:

Visto por mí la mucha razon que vosotros tenéis en querer gozar de vuestras honradas libertades, y haber yo sido mal informado en querer que me pagássedes los Subsidios que los demás mis Vasallos me pagan, y haver visto en los Archivos de Simancas lo que los Reyes mis antepassados dejaron ordenado en lo que toca á esta mi querida Señoría: he mandado que se borre é atilde y teste de mis Pragmáticas Reales en lo que toca á essa Señoría, é que gocéis de todas libertades y essempciones que los demás vuestros honrados Padres gozaron, con las demás que quissiéredes gozar y usar de ellas, haciéndoos yo de nuevo merced de ello, por los muchos é buenos é leales servicios qne esta Corona Real ha recibido é recibe de presente.

Dada en esta mi Corte de Valladolid en 24 de Mayo de 1601.

YO EL REY.

A mi querida y antigua Patria de mi Señoría de Vizcaya.»

El siguiente año de 1602 Felipe III de España aprobaba y confirmaba por Real Cédula los fueros, libertades, buenos usos y costumbres de Bizkaya, y jurando respetarlos y guardarlos en toda su pureza, entraba en posesion del cargo de Señor de dicha república, en la cual fué el II de su nombre.

Bizkaya en 1893

Ya han visto los lectores la energía con que dió frente Bizkaya á un intento de contrafuero en 1601, en aquella época en que España era la más poderosa nacion del mundo y sus hijos eminentemente guerreros, y la República de Bizkaya apenas podría levantar en armas el número de diez mil hombres, pues habíase el de su poblacion mermado considerablemente en las continuas guerras á que acudían al servicio de sus Señores.

En la cuestión que en la actualidad nos preocupa no se trata ciertamente de un contrafuero, ni hoy es España la nacion más poderosa, sino la más raquítica y enclenque, ni sus hijos son eminentemente guerreros ni mucho menos. Dejando estos dos últimos puntos sin demostrarlos porque no precisa, digo que no puede darse el nombre de contrafuero á la pretension del Sr. Gamazo, porque ni existe lo que llamamos *Fueros*, ni, aunque existieran, es quién aquel ministro español para cometer un contrafuero, pues no es, ni ha sido, ni será nunca (y no lo tome á risa) ninguna autoridad de la República de Bizkaya. (1)

Pero hay la paridad de que en ambos casos se trata de la conculcacion de un derecho: en 1601, de un derecho del Estado de Bizkaya; en 1893, de un derecho de la Provincia de Bizkaya, pues á tal extremo de decadencia ha llegado nuestra Patria.

Es preciso, pues, que el historiador vea si aun quedan bizkainos dignos de este nombre, ó si más bien tienen su frente sobre el polvo y sobre su nuca la planta del español.

No es Bizkaya el único estado euskeriano uncido al yugo español y expuesto á ser el ludribio de un legislador extraño.

Así como aquélla fué sometida por España en 1876, reinando en la vecina nación Alfonso XII, así en igual fecha quebrantó aquel reino los pactos bilaterales que firmó con Guipuzkoa en 1200 y con Alaba en 1332, y así en 1512 y bajo el cetro de Fernando V, llamado sarcásticamente *el católico*, había á Navarra conquistado. (2)

Todos cuatro estados euskerianos de aquende el Bidasoa padecen hoy la misma infortunada suerte de estar dominados por la nacion española; y todos menos uno están al presente amenazados de ver pisoteado el último derecho que los distingue de las provincias españolas

Ahora bien: esos cuatro estados, si distintos en la historia, hermanos por la raza la lengua y el carácter é iguales en la desgracia, ¿serán por ventura tan insensatos que, no abrazándose estrechamente para formar un solo cuerpo, el cuerpo nacional de Euskeria, se aislen y separen con tan inaudito desafecto que, si alguno de ellos fuere atacado en sus derechos, no acudan los demás en su socorro y lo desamparen y lo abandonen á sus propias fuerzas?

CONSTE

Como hay algunos que todavía no han comprendido la significacion de las ideas bizkainas expuestas en el libro abajo anunciado, en el cual, no obstante, si no directamente tratadas, están perfectamente aclaradas y redondeadas, y afirman que cierta sociedad las ha sostenido como suyas propias, el que esta hoja volante ha escrito se ve en la precision de declarar, para que no se le juzgue afiliado á ninguno de los partidos militantes, que es un bizkaino anti-carlista, anti-integrista, anti-euscalerriaco, anti-conservador, anti-fusionista y anti-republicano, en una palabra, anti-liberal y anti-español, que es lo que todo bizkaino debe ser segun el lema JAUNGOIKUA ETA LAGIZARRA.

Abando, 8 de Junio de 1893.

(1) Véase la definición del *contrafuero* en la última Nota del opúsculo «Bizkaya por su independencia.»

(2) Aunque Fernando V de España usurpó en 1512 el trono de Nabarra á sus legítimos dueños doña Catalina y D. Juan de Labrit, respetó y guardó íntegramente los fueros de aquel reino euskeriano. Pero en Agosto de 1841, apoyándose el Gobierno español en el artículo 2.° de la ley decretada á consecuencia del Convenio de Bergara, sometió á Nabarra, no dejándole más que ciertos derechos económicos y administrativos, que son los que hoy pretende el Sr. Gamazo conculcárselos.

BIZKAYA POR SU INDEPENDENCIA

POR A. ETA G.'TARR S.

LIBURU BARRIJA: PESETA BATEKO

Saltzategijak: Bilbo'n, liburutegi guztijetan. Gernika'n, Goitia'enan. Bertan, Egurrola'enan. Durango'n, Elosu'enan.

Saltzen da batta: Berrmeo'n, Mundaka'n, Lekeitio'n, Ondarroa'n, Marrkiña'n, Elorrijo'n Amorebieta'n, ta Valmaseda'n.

LIBRO NUEVO: UNA PESETA

Puntos de venta: Bilbao, en todas las librerías. Gernika, en la de Goitia. Id., en la de Egurrola. Durango, en la de Elosu.

Véndese además en: Berrmeo, Mundaka, Lekeitio, Ondarroa, Marrkina, Elorrio, Amorebieta y Valmaseda.

BILBAO: Tip. de S. Amorrortu